


Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko maiatzak 16

Usurbil, 20. Zenbakia



**EGUN BATEZ
SAGARDOA ALKATE**

HILDAKOAK



1997-5-10
Miguel Amondarain Artola
73 urte
Santuenea

JAIOTZAK

Urtzi Oiarbide Alvarez
(1997-04-28)
Galtzara gaina

Itxasne Telleria Santiago
(97-04-26)
Puntapax kalea



EZKONTZAK

Maria Gonzalez Fuentes
(Muna Lurra)
eta

Jose Antonio Alonso Pereira
(Errenteria)
(1997-04-26)

Iñaki Larrañaga Oroz
(Kaleberri)
eta

Ana Maria Balerdi Izagirre
(Santuenea)
(1997-05-01)

Ramon Urkia Miñes
(Atxegalde)
eta

Ainhoa Pino Gonzalez
(Errenteria)
(1997-05-03)

Arantzasu Araolaza Zumeta
(Atxegalde)
eta

J. M. Lejardi Igarza
(Atxegalde)
(1997-04-26)
(Argazkian)



Arg: Ekolitz

Bai, esan?


• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea egoitza	37 32 28
• Agerialdeko ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkarte egoitza	37 17 51
• Oiarde kiroldegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte musika eskola	37 15 94	• Eusko Tren informazioa	47 09 76
• Etumeta euskaltegia	37 20 01	• Noaua! aldizkaria	36 03 21



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

3 3 1

**usurbildar bazkide ditu
Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!**



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usarralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.
Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa: Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

PORTADA: 6. Sagardo
eguna. 1987ko maiatza-
ren 24a. Sagardo botá-
zailleen lehiaketa dema
harriaren gainean.

LEHEN JAUNARTZEA



BAI

Koro
Zubizarreta
gurasoa

Kristau artean zabaldua dago eukaristiaren
kospakizuna eta horien artean badira bereziak
direnak: bataioa, jaunartzea, sendotza...
Kristauen artean garrantzi berezia hartzen duten
uneak dira. Erliio kristauaren barruko sakramen-
tuak dira.

Gure kasuan, alabak maiatzaren 25ean hartuko du bere lehe-
nengo jaunartzea. Hiru urtetan dotrinara joan da, beraz denbora honetan
ezagutu ditu gutxi gora behera kristauen ohiturak. Haurra zertan ari den
ohartzen ez bada ere, jaunartzearen bitartez Jesuskristorenganako lotura
haundiago lortuko du. Katekesiko urteotan Jesusen bizitzaren berri jakiteko
aukera izan du, eta hemendik aurrera ere izango du. Eredugarria den bizitza
horren berri jaso du, eta bide horretan aurrera jarraitzeko gehiago ezagutze-
ko eta sakontzeko posibilitatea edukiko du. Esperientzia atsegina da gaine-
ra, bai gurasoontzat, bai berarentzat.



EZ

Jose Mari
Arzallus
gurasoa

Gure alabak jaio zirenean, Usurbilgo udaletxe-
an erregistratu genituen, mendu honetako
erreferentzia arruntenak emanez: sorterria eta
aita-amen nortasunak. Ez genituen ez Partidu Poli-
tikoetaz eta ez Elizan afiliatu. Lan hau beren au-
kerarako utzi genuen. Guretzat betebeharrak ala-
bak mantentzea, jaztea, beraiei maitasuna es-
kaintzea eta mundu honetako atzera-aurrerak jator osatzen erakustea ziren.

Sei urte betetzean edo, Usurbilgo Parrokiatik gutun bat etorri zen gurera,
Katekesian hasi nahi izanez gero, azaltzeko gonbitea luzatuz. Alabei beraiei
galdetu genien nahi al zuten eta ezetz esan zuten. Gero, zortzi urte betetzean
edo, haurren artean beste burrunda bat zabaldu ohi da: Lehen Jaunartzea.
Orduan ere galdetu, eta ezetz. Beti askatasuna izan dute. Nahi izan dutene-
an joan egin dira eta oraindik ere joaten dira Parrokiko ekintzetara.

Gai traszendentalak ez dizkigu behin ere ezkutatu, eta informazio irekia
eskaintzen saiatu gara: Moises, Buda, Olinpoa, Jesus, Mahoma...; berpiztea,
Karonte, errenekarnazioa, edo mundu honetako behar bezala osatuz kofor-
matu... Jokabide hori guretzat ez da oso eroso izan, baina mentalitate zabal
batetarako bidea hori dela uste dugu. Zergatik?

Katekesiko lehen zikloa jaunartzean burutzen dela ematen du. Zortzi urte eta
solemnitate haunda bat. Haur bat dogma baten aurrean. Haurren mentalita-
tearen xalotasuna aprobetxatuz, ideia dogmatikoak eta pekatu aeta inper-
nua eta abar kaskezurrean sartzea oso serioa dela iruditzen zait eta horren
ondorioak eta, behar bada, "aberiak" inork ez dituela kontrolatzen. Eta eliza-
ko "komunio" horrek bere inguruan probokatzen duena (jantziak, desfilea,
argazkiak, erregaliak, bazkariak) "Komunioa" ala esesokeria da?

Bene-benetan, haurrak (eta beren inguruakoak) egun horretan zeren bila
joaten dira, elizakoarena edo bestearena?

MENDIGAIN INMOBILIARIA

Eguzkitzako etxebizitzak, lokalak eta garajeak

Palazio, 28-1,
Donostia 20.008

Tlf. 21 79 86

kalezarra
karrozeria



Txapa konponketa eta kotxe pir

Ugaldea industrialdea
USURBIL Tel. 37 26 09



BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santuenea 23
Tlf. 36 27 34

IRAZUKO KARKABA

Ez dakit zeini dagokion Udalari ala alboetako etxeetako bizilagunei, baina Irazu kalean, Txiriboga taberna pareko karkabako oholetzko itxitura aldatu egin beharko litzateke. Zenbat urte daramazkite ohol horiek hortxe? Ez da galdera txarra Noaualko lehiaketarako. Lika eta goroldioa behintzat badaukate franko. Ixteko izan zuten arrazoia ezagutzen ez badut ere, ez da zaila somatzea: karkaba irekirik egonda pilatzen zen zikinkeria. Neronek ere bat baino gehiago ikusidut bertan pixa eginean, helduak ere bai. Herriko jaietan edota Sagardo Egunean berriz, jendea iladan zain kabitu ezinean. Ez da harritzeko, beraz, ixteko erabakia hartzea. Hala ere, beste era kuriosoago batean itxi zitekeen, ezta? Inguruko

etxe gehienak txukundu dituzte, frontoiari ere estalki berria ematen hasi dira, dema plaza ere txukunduko omen dute ... Karkaba irekitzeko aukera ez al da aztertu? Ixtekotan, ez al du beste-lako itxitura bat merezi?

Amaia Maiz

HELBIDE BERRIAK ERABILI

Orain dela hilabete batzuk aldatu ziren herriko kaleen izenak, eta baita zenbakiak ere. Dударik gabe, lehengo izenak baino politagoak dira eta erabiltzen hasi behar dugunak. Izan ere, oraindik badago helbide zaharrak erabiltzen dituen jendea: batzuk hasierakoak eta beste batzuk izen berriak baino zenbaki zaharrak. Orain arteko postariak herriko kaleak ondo ezagutzen zituzten eta moldatzen ziren.

Baina, orain, postari berri batzuk hasi gara, eta zerrenda zahar eta berriekin ibili beharrean aurkitzen gara. Udalak eta Telefonikak hasiera-hasieratik aldatu zituzten helbide berriak. Horregatik, gainontzeko elkarte, enpresa eta zerbitzuei ere (Kutxa, Euskadiko kutxa...) helbideak eguneratzeko eskaria egin nahi diegu lerro hauen bitartez.

Horrez gain, herritarroi ere, mesede hori eskatu nahi dizuegu. Horrela, posta zerbitzua askoz era azkarragoa eta zuzenagoa izango da eta guztiontzat hobea.

Usurbilgo Korreos

OKERRAK ZUZENDUZ

19.aleko erreportaiari Aizpurua baserriak 70 hektarea lur zituela jarri genuen, baina 35 hektarea ditu.

Txirikitutik



Hona hemen duela urtebeteko argazkia. Bai adiskideok! **Noaual Kultur Elkartek** urtea bete du. Iazko **Sagardo Egunean** atera genuen **argazkia** duzue begi aurrean. Aurten berritza erabaki dugu, oraingoan ere bazkide guztiek izango dute bere lekutxo argazki honetan. Azaldu, **Sagardo Egunean, goizeko 11.00etan, elizaren alboko parkean.** (Kale Nagusiak eta Irazu kaleak bat egiten duten tokian)

ARRAINDEGIA
PELLO

Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL

TINTURAK
FERNANDO

Bizkarre, 6 Usurbil
Tlf. 36 60 19 / 36 34 60

Margoak eta
paperak

Sintasola,
moketa,
kortxoak eta
tarima
jartzen dira

ORBELDI
MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Arizeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



CARLOS PRADOS HERRERO

Salamancar honek 82 urte beteko ditu datorren ekainean. Usurbil aldera 51 urterekin etorria, bost seme-alaba eta zazpi biloba ditu Usurbil eta Gipuzkoan zehar banatuta. Bere denborapasa gustokoena, berriz, pelota da.



Ia bizitza erdia zure herrian pasata, nolatan etorri zinen Usurbila?

Nire seme-alabengatik. Gipuzkoan bizi ziren eta beraiek esan ziguten emaztea (Josefa) eta bioi hona etortzeko.

Eta zertan lan egin duzu hemen?

Hona etorri eta lehen sei urteak etxegintzan lanean aritu nintzen. Gero, lorazain pasa nituen beste bederatzi.

Eta zein da lan gogorragoa?

Etxegintzan pisu haundiak eraman behar dituzu, eta lan sufritua da. Baina lorazaintzak ere baditu bere arriskuak. Euskal Herri guztian zehar ibili naiz jardinak txukundu eta belarrak mozten, eta hori ere ez da lan fina.

Zer dela eta arrisksua?

Guk askotan txukundu behar izaten genituen zentral elektrikoetako belardiak, eta orain ez bezala, lehen sega erabiltzen genuen gure lana egiteko. Behin baino gehiagotan ia gelditu gara bertan segak kable elektriko bat jotzeagatik.

Lan asko eta ugari egindakoa zara, beraz.

Dudarik ez egin. Asko ikusitakoa naiz. Soroan, etxegintzan eta lorazain lan egiteaz gain, 1932 inguruan wolframio mehatzean ere lan egindakoa nauzu.

Tartean garai txarrak ere ezagutuko zenituen, guda zibila bizitzea egokituko zitzaizun.

Bai, hiru urte pasa nituen guda izugarri horretan frankisten bandoan, baina ez dut nahi horretaz hitz egin. Inoiz ez dut ikusi gizonen arteko sufri-mendu haundiagorik.

Lanaz gain, ordea, edukiko duzu beste gustoko denborapasarik?

Bai noski. Beste ezer baino gehiago, pelota ikus

tea gustatzen zait. Telebistan botatzen dituzten partidu guztiak ikusten ditut.

Eta inoiz jokatu al duzu?

Ez naiz asko jokaturakoa, baina 68-70 urte nituela 7tik bidaltzen nuen pelota frontisera.

Eta noiztik afizio hori?

Hemen ez dakizue, baina Salamancan asko jokutzen zen pelotan, nahiz eta gero eta gutxiago jokatu. Pelotari oso onak izandakoak ere badira, "kantareak" eta guzti egiten zitzaizkien. Salamancan herri bakoitzak du bere frontoia. Txiki-txikitatik datorkit pelotako zaletasuna.

Eskuz banakako finala pasa den astean jokatu da, ba al zenekien nork irabaziko zuen?

Pelotan ez dut faboritorik, eta gainera zaila da jakitea nork irabaziko duen, tranpa asko egiten baita mundu horretan. Batek besteari uzten dio galtzen... Askotan utzi egiten dira; lehen egiten zen eta orain ere egiten da.

Eta pelotaz gain, gustoko beste kirolik ba al duzu?

Ez, futbola ez zait batere gustatzen, eta hori bakarrik botatzen dutenez, askotan ezin dut telebista ere piztu.

Beste gustoko denborapasaren bat?

Irakurtzea, baina ez edozer gauza.

Nahiz eta laister 82 urte bete, sasoi ederrean ikusten zaitugu.

Asko ibiltzen naizelako. Egunean ez dakit zenbat kilometro egiten ditudan, baina asko dira. Behin industrialdera joan nintzen eta treneko ardura-dunari esan nion buelta osoa zenbatean egiten nuen kronometratzeko. Bera ere harrিতuta geratu zen 9 minututan egin nuela ikusi zuenean. ninduenean.

N • U

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefona: 36 19 51



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 2255

Pintxo eta bokata
goxo-goxoak

Eguzkitza

TXOKOALDE

Iñaki
LabakaErroizpe Elkartearen
batzarra

Joan den apirilaren 27an **J Erroizpe Elkarte**an egin zen biltzar orokorrean, zuzendaritza batzordeak lokalaren auziaren berri eman zuen. Aurreko epaiari errekurtsioa jarri zion jabeak, baina epailek berriz ere elkartearen aldeko epaia eman dute.

Beraz, 2005. urte arte oraingo lokalean jarraitzeko eskubide osoa dute, errentaren ordaina auzitegian gaurkotuko baitute. Hala ere, **elkarteko kideek jabearekin akordio batera iritsi nahi** dute. Epe luzeagoan bertan jarraitzearen truke gehiago ordaintzeko prest daude. Sutegi-zaharrera pasatzeko aukera erabat baztertu dute. Lokal berria egokitzeko diru asko behar da, eta elkartea ez dago prest hainbeste diru gastatzeko. Epaietak gastuak asko igo baditu ere **kontuak ondo** omen dihoaz **Erroizpen**.

Batzorde berria osatzeko, kostata baina, **hiru bazkide** aurkeztu ziren. Urtea amaitu arte gaur egungo batzordeak elkartearen martxaren berri emango die berriei. Datorren urtefik aurrera, beraz, **batzorde berria** izango da **Erroizpe Elkarte**an.



Beste gai bati helduz, udalaren proiektu zahar bat aurten goan gauzatu daiteke. Hesirik gabeko auzoko tren- pasabidea ixteko asmoa du. **Zumeta** aurreko trenbide pasagunetik pasa eta **Illunbe** atzekaldekik erriberara joateko bidea egin nahi dute. Honela, trenbidea zeharkatzeko aukera bakarra izango da. Ibiltzen den jende pila ikusita ezbeharren bat gertatu baino lehen neurriak hartzea hobe da.

ATXEGALDE

Zaloa
ArnaizEuria eta haizearekin
gauzak airean

Azkenean iritsi da euria. Premia haundikoa zen, baina badirudi berriz neguan sartu garela, ekaitz eta guzti etorri baitzaigu. Leku guztietan bezala haize zakarrarekin arriskua izan dugu nonahi, zenbait kaletan **teila puskatuak** ikuste-ko aukera izan dugu. Zorionez ez da zauriturik izan.

Auzoko zuhaitzak ere ez dira libratu, hauetako batzuren **adarrak hautsi** edo erdi zintzilik geratu baitira. Auzoan zehar arropa ugari ikusi ditugu lurretik bueltaka. Arroparen bat falta zitziola ohartzean aurpegi ederrak ikusiko ziren, honelako zerbait gertatzean irrifar gutxi ikusten baitira.

Eguraldi kontuak alde batera utziz, azken egun hauetan errepide nagusian (N-634) jartzen ari diren seinale berrien materiala ikusi dugu Atxegaldeko sarreran. Auzo pareko bide hertzean seinale berriak jartzen ibili dira Udaleko hainbat langile. Honela, seinale berriekin batera zaharrak tapatuta ikusi ditzaiegun une batzuetan.

k al

AGINAGA

Iratxe
Begiristain

Aginagarrak Madrilen!

Usurbil, Orio eta inguruko herrietako jendearekin osatutako autobusean **14 Aginagar** izan ditugu **Madrilen**. Union Democratica de Pensionistak (U.D.P.) 20. urtemuga ospatzen zuenez 5.000 pertsona baino gehiago bildu ziren Bernabeuko belodromoan. Euskal Herriatik nahiz Espainiatik ehundaka autobus joan ziren Madrilera. Aginagarrak Madril ezagutzeko aukera izan dute, baina ez hori bakarrik, **Segovia aldean** ere ibili omen dira eta. Ezin geldirik egon, bata eta bestea ikusi behar. Gu ere joango ginatke, bai horixe!



Maiatzaren 31ean, berriz, **Fiterora** joateko aukera. Balnearioa ezagutzeaz gain Corellan bazkalduko dute. Apuntatzeko badakizue zer egin.

Bidaia alde batera utzi eta gatozen Aginagara, azkenean badugu pelotan non ibili eta. **Frontoi zaharra berritu eta** dotore pintatu digute. Orain, larunbatetako pelota saioetarako eserlekuak falta!

ZUBIETA



**Xabier
Arregi**

**Txakurren erakusketa
Zubietan**

U daran zaldi laisterketak izan genituen, neguan korrikalariak aritu ziren eta udaberrian **txakurrak** etorri zaizkigu **Zubietako hipodromora**. Ez besteak bezala korri egitera, erakusketa baizik. **Txakurren Gipuzkoako nazioarteko erakusketa** ospatu zen maiatzaren 4an. 3000 pertsona inguru bildu ziren 131 arraza desberdinetako **650 txakur** inguru ikusi asmoz. Italia, Frantzia, Holanda eta Greziako txakurrak izan genituen, besteak beste, Zubietan. Afganiar galgo bat izan zen irabazlea.



Aurreko alean liburuetan azaltzen ziren Zubietaren aipamenez hitzegiten nuen. Oraingoan, berriz, **telebistaz** hitzegin behar. Eusko Jaurilaritzak "Ven y cuentalo" izenburupean egindako iragarkian **Zubietako frontoia** agertzen zaigu. Bertan, une batean, Zubietako pelotari gazteak agertzen dira errebotean jokatzeko.

KALEZAR



**Pedro Mari
Matxain**

**Piperrak, erribera eta
Ospital txiki**

U surbilgo udalak, Behemendi Beterriko Mendi Nekazaritza elkartearen laguntzaz herriko baserrietan inkesta sakona egin zuen. Bertan, Usurbilgo baserrietan **piperrak** zuen **garrantzia handia** zela azaldu zen. Honen ondorioz, piperrak ontziratze proiektu bat egin eta piperrak landatzen duten baserrietar guztiei azaldu ziguten. Piperrak hontziratze elkarre bat sortzea zen udalaren asmoa eta halaxe gertatu da. **Sei piper ekoizle bildu gara**, lau aginagar, Kaleberriko bat eta Kalezarko beste bat. Aurten ahal den piper guztia ontziratze asmoa dugu, hori bai, merkatuak aginduko du kopuru hori. Oraingoan, ontziratzea aurrera eramateko lokala egokitzeko ari dira Atxegalden.

Usurbilgo erriberako 300.000 m² (30 hektarea) nekazaritza lurra izatera pasa direnez **Orbeldiko presa jeistea edo kentzea** eskatuko nioke Udalari, uholdeak etorri baino lehen. Presa honek ez du lehengo funtzionamendurik. Ura geldiarazten du, eta horren ondorioz ura sartzen da Kalezarko erriberara. Presa kendu edo bere altuera jeistea izango litzateke egokiena. Erribera ur hoietatik libre geldituko litzateke.

Azkenik eta amaitzeko bakoitzari berea. "Lagrimeru", "humilladero", "negartokia" izenak erabili ditugu orain arte, baina Kalezarren **"Ospital Txiki"** esanda ezagutzen da leku hori. Aldamenean ermita dauka eta honek berriz, "Hospital" izeneko etxea du alboan.

KALEBERRI



**Nieves
Aranburu**

**Frontoia libre Sagardo
Egunerako**

Frontoiko estalki berria erakitzeke lanak aurrera doaz. Euri egunak agertu dira, haizea ere gure artean izan dugu, baina **Santixabeletarako lanak amaitu** asmoz jo eta ke ari dira lanean. Frontisean jarri dute **marmola**, baina egitura berezirik duenik ez dirudi. Txikitik haundira, modu berezian jarri behar zituztela entzuna nuen, baina "ha simple vista" frontis arrunta izango dugu Usurbilen.

Zulaketa lanetan ere ikusi ditugu. Frontoian nahiz dema plazan elektrizitate hodiak sartu dituzte, dema plaza inguratzeko duen petrilean jarri behar dituzten argiak jartzeko ziurrenik. **"Ojos De buey"** ak jarri behar omen dituzte, ondo argiztatzeko duten bitartean...

Sagardo Egunerako, berriz, dena prest. Zuek lasai, **fiesta frontoian eta dema plazan egingo da**. Iganderako frontoia txukun egongo da, lanerako trasterik gabe, eta sagardoa edateko ez da oztoporik izango. Hala ere, neurrian edan.

Azkenik, **Santixabeletan**, frontoia inaguratzeko **pelotari profesionalak** ekarriko dituztela entzun dut, ea ba egia den, ordua bada eta!



H erorrek esan



Euxebio Txapartegi

Kalezar

Ondo dagoela iruditzen zait. Alde batetik, sagardoa dohainik dastatzeko aukera dago, eta bestetik, urte sasoi ona da edari hau edateko. Gainera, usuario zaharrari jarraitu behar zaio.



Juan Joxe Olano

Kalezar

Uste dut Sagardo Eguna tradizio bilakatu dela eta beraz, urtero egin behar den gauza dela. Herriak eskatzen duen zerbait da. Bestetik, ez nuke ezer aldatuko, bakoitzak ekarri behar du giroa etxetik.



Edurne Iribar

Atxegalde

Ez naiz giroan gehiegi sartzen, baina oso egun polita dela iruditzen zait, jende pila, sagardoa toki guztietan... egun ederra izaten da. Sagardo egunetik ez nuke ezer aldatuko, ondo dagoela iruditzen zait.



Lurdes Bengoetxea

Kaleberri

Egun hau oso ondo dago orokorrean. Beharbada dagoen arazo haundiena tokiarena da. Jende asko etortzen da kanpotik ere eta aurtien frontoiko obrak direla eta ez dakit non sartuko garen.



Karmele Aizmendi

Kaleberri


Ondo. Giro polita sortzen da. Baina gauza bat ez dut ondo ikusten: jende gazteari sagardoa ematen zaio, eta zerbait aldatzekotan hori aldatuko nuke, arreta jarri beharko litzateke gauza hauetan. Bestela, egun borobila da.



Iñaki Etxeberria

Kaleberri

Bai, sagardo beguna orain dagoen bezala ederki dago, ez nuke ezer kenduko eta ez gehituko. Beno, beharbada ez litzateke hainbeste propaganda egin behar, izugarritzko jende pila etortzen baita. Herrikoentzat gehiago izatea nahiko nuke.



Toñi Rodriguez

Santuenea

Urtero bueltatxo bat ematen dugu, eta oso ondo pasatzen dugu. Gainera, uste dut egun hau oso berezia dela, izan ere, herri askotan ez baita egiten horrelakorik. Zerbait azpimarratu beharko banu, sortzen den giroa dela esango nuke.



Maria Jesus Irastortza

Etxealdia

Oso ondo. Urtero ibiltzen naiz bertan, nahiz eta gehiegi ez sartu giroan. Izan ere, ez naiz oso edari zalea. Hala ere, egun horretan izugarritzko giroa izaten da eta horrela jarraitzea espero dut. Aldatu ere, ez nuke ezer aldatuko.



KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!

ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

Enplegu sustapena: langabetuen zerbitzurako

Lana aurkitzea gero eta zailagoa dela edonon entzungo dugu. Ikasketak amaitu eta lanik ez, ikasteko gogorik ez eta lanik ez... Martxoaren amaieran 275 langabetu zeuden Usurbilen, beti ere INEMek emandako datuen arabera. 122 gizonetako eta 153 emakumezko osatzen dute langabetu poltsa hori.

Langabeziaren arazo honi aurre egiteko, Udalak herri mailan enplegua bultzatzeko asmoz bulego bat ireki zuen orain dela urte batzuk. Enplegu Sustapenerako Zerbitzua duzue bulego hori. Langabetu, promotore edo enpresa ideia bat duenari dago zuzendua. Langabetuei informatu, aholkatu, formatu eta enplegua sortzeko ekimenetan laguntzen du zerbitzu honek. Helburu horiek betetzeko zerbait egitasmo jarri dituzte martxan.

Alde batetik Eusko Jaurlaritzako enplegu prestakuntzaren egitasmoa. Luzaro langabezian aurkitzen direnei, kualifikazio beharra dutenei eta 25 urtetik gorakoei dago zuzendua. **Josune Mujika** Enplegu Sustapenerako arduradunaren esanetan, *"Udalak dituen beharrak aztertu, obra nahiz zebitzuei dagokionean, eta erakundee-tatik (Eusko Jaurlaritza, INEM eta Foru Aldundia) diru laguntzak lortzea da gure helburu. Horrela, udaleko obrak egin eta, bide batez, enplegu kualifikatu bat eskeiniko litzateke"*.



Enplegu Sustapenerako zerbitzuaren barruan anbulategi ingurua txukuntzeko bi igeltsero peoi kontratatuko dituen lanaldi erdiz.

Lehendabizi enpleguariburuzko informazioa ematen zaie. Lanbide horretarako prestatzea da bigarren pausoa. Ondoren kontratazioak egiten dira, herriko lanak garatzeko eta azkenik lana bilatzeko teknikak eta laneratzeko laguntza ematen zaie. Aurten 10 langabetu aukeratuko dira, ikastaroa emango duen monitorea-rekin batera igeltseritzako lanak egiteko.

Lorazain peoi bat eta bi igeltsero peoi

Beste aldetik, INEM eta udalen arteko akordioa dago. Luzaro langabezian daudenei, lorazain peoi edo igeltsero peoi bezala INEMen izen emanda daudenei eta 18 urtetik gorakoei zuzendua dago. Lorategi eta belardien mantenimendu lanak egiteko lanaldi osorako lorazain peoi bat, eta lanaldi erdira anbulategi ingurua txukuntzeko 2 igeltsero peoi kontratatuko dira.

Autoenplegua eta enpresa ekimen berriei ere laguntza eskeintzen die Enplegu Sustapenak. Autoenplegurako dauden diru-laguntzei buruzko informazioa, enpresa berria eratzeko ideia edukitzean eman beharreko urratsei buruzko orientabideak ematen dira. Azken finean, bulegoan jasotzen diren ideia enpresarialak aztertu ondoren "enpresa kudeaketa" ikastaroa eskeintzeko asmoa dute.

Bulego hau langabetuei informazioa eta aholkularitza emateko dago. Usurbilen nahiz eskualde mailan dituzten zerbitzuei buruz informazioa ematen zaie: formazio okupazionalak, Eskola Tailerra, informazio zerbitzuak... Honez gain, boletin ofizialetan eta egunkarrietan ateratzen diren lan eskaintzak jasotzen dira, langabetuari eskaintzeko. Zerbitzu honi buruzko informazioa udal-etxean duzue. **Josune Mujika** da honen arduraduna.

**TABERNA
JATETXEA**



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Euskaraz gutxi irakurtzen da herrian

Lirakurtzeko zaletasuna duenak ja ezagutuko du txoko hau; hala ere, liburu-zale hauetatik gain, beste guztiarentzat ere oso interesgarria den lekua dugu liburutegia.

Liburutegiak bi zati nabarmen ditu: lehena haurren liburutegia da, eta bestea, helduentzako liburutegia. **Maria Angeles Altuna** da liburutegiko arduraduna, eta bere esanetan, "liburutegia horrela banatuta egoteak ez du esan nahi gazte bati helduen liburutegiko liburu bat hartzea debekatzeko diogunik; baina fisikoki horrela antolatuta daukagu".

Berrikuntza teknikoak

Maria Angelesekin gain, ikasurte honetan **Joseba Irazu-tabarrena** ere lanean ari da liburutegian, eta honi esker posible izan da aurten asteazken goizetan liburutegia irekitzea. "Une honetan lanik premiazkoena liburuen datuak ordenagailuan sartzea da, baina liburutegiaren ardura ere norbaitek hartu behar du; beraz, Josebarekin posible da bi gauzak egitea", azaltzen du Maria Angelesekin. Iaz arte liburuak erregistro liburu batean sartzen genituen, baina orain datu hauek ordenagailuan sartzen ari gara. Era honetan, eta liburuak daramaten barra-kodeari esker liburuen jarraipen eta kontrola egitea posible da.

Datu zehatzik ez badago ere, Maria Angelesekin azaldu



digunez, une honetan 9.500 edo 10.000 liburu edukiko ditu liburutegiak.

Egun 10.000
liburu daude
udal liburute-
gian

Liburutegiko zerbitzuak jasotzeko, beharrezkoa da irakurle-txartela edukitzea. Txartel honekin, gehienez ere bi liburu ateratzeko aukera dago eta 15 eguneko epean itzuli behar dituzu. Hala ere, badakite zenbait liburu ez dituztela inoiz ere berreskuratuko, jendeak eraman bai baina batzuetan itzultzen ez dituelako. Sistema berriarekin, txartel berriak egin beharko dituzte interesatuta dauden guztiak: "Gaur egun 1500 irakurle ditugu gutxi gora

behera, baina hauetatik asko ez dira azaldu ere egiten. Horregatik, txartel berria egin nahi duenari orri bat betetzeko eskatuko diogu eta irakurleen zerrenda erreala izango dugu. Datorren urterako hauek mar-txan izatea espero dugu".

Liburu berriak Lasarte-Oriako liburudenda batekin duten hitzarmenaren bidez eskuratzen dituzte. Maria Angelesen esanetan, hamabostean edo hilabetean behin liburu berriak eskaintzen dizkie liburudenda honek, eta hauetatik nahi dituztenak hartzen dira. "Era honetan eskuratzen ditugun liburu gehienak gaztelerazkoak dira. Euskaraz, aldiz, liburu aipagarrienak soilik aukeratzen ditugu. Izan ere, hurrengo urtean Eusko Jaurlaritzak aurreko urtean kaleratu diren euskarazko liburu guztiak bidaltzen baitizkigu". Honetaz gain, udal liburutegiak zenbait harpidetza

G A L A R R A
G A R R A I O

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

elexpe
SOLARIUN
bono bereziak
ileapaindegia

Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62

ere baditu: hala nola, Txalaparta, Auñamendi eta Gaiak argitaletxeekin.

Hala eta guztiz ere, gerta daiteke norbaitek liburu bat eskatu eta ez egotea. Kasu hauetan inguruko liburutegiekin harremanetan jartzen dira: "Gipuzkoako liburuzainek elkarte bat dugunez, adostuta dugu liburuak elkarri uztea. Usurbilgo liburutegiak Lasarte, Hernani eta Donostiako liburutegiekin du harremanik haundiena, gertuenak baitaude. Eskaera egin eta hurrengo egunerako hemen izaten dugu liburuak".

Euskaraz irakurketa gutxi

Baina zer irakurtzen dugu usurbildarrok? Liburutegiko arduradunaren esanetan, haurrek euskarazko ipuin eta liburuak irakurtzen dituzte batez ere, baina gazte eta helduek gaztelera azko literatura dute gustokoen. "15-17 urtetik aurrera aldaketa nabaria da: Ordurarte gazte euskal-

dun gehienek euskaraz irakurtzen dute, baina adin horretatik aurrera gehienek gaztelera irakurtzen dute", aitortzen du Maria Angelesekin.

Beldurrezko, intrigazko eta maitasunezko liburuak irakurtzen dira gehien

"Aldaketa honen arrazoietako bat gaztelera aukera zabalagoa dagoela izan liteke. Esate baterako, Stephen King-en beldurrezko liburuak oso gustokoak dira, baina hauek ezin dira euskaraz irakurri.". Hala ere, nahiz eta euskarazko irakurketaren egungo egoera nahiko iluna izan, beste liburutegiekin konparatuz gero, Usurbilen euskaraz zertxobait gehiago irakurtzen dela dirudi.

Gazteek beldurrezko eta intrigazko liburuak irakurtzea atsegin duten bitartean, helduek (batez ere emakumeek) maitasunezko eleberriak aukeratzen dituzte gehien. Adinari dagokionez, salbuespenak salbuespen, orokorrean gehien irakurtzen dutenak gaztetxoak dira, eta gutxien, berriz, 16 eta 25 urte bitartekoak. Bestalde, emakumezkoak dira nabarmenki adin guztietan etxera liburu gehien eramaten dituztenak.

Etxeko lanak egiteko tokia

Inoiz liburutegira arratsalde hurbiltzen bagara, haur eta gaztetxo asko ikusiko ditugu bere etxeko lanak bertan egiten. Maria Angeles, ordea, ez dator bat liburutegiaren erabilpen honekin. "Haurrei askotan ikastetxean bertan esaten diete beren taldeko lanak hemen egiteko. Badirudi etxean ere gero eta toki gutxiago dagoela haurrek elkarrekin lan egiteko. Baina niri ez zait iruditzen liburutegia denik lan hauek egiteko tokia. Liburutegia liburuak irakurri edo liburuak kontsultatzeko tokia baita". Gai-nera, etxekolana/liburu kontzeptuak parekatzearen beldur da Maria Angeles. "Hori gertatzen bada, beharrezkoa ez dutenean, liburuak irakurtzeari utzi egingo diote. Oso desberdina da liburu bat nahi duzulako irakurtzea edo eskolatik bidali dizutela irakurtzea; bi liburu desberdin dira".

Idoia Torregarai



MAHUKA



GAZTE DENDA
Orain, udaberri
püntako m

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

Jende ugari eta eguraldi nahiz giro bikaina Andatzan

Bero egiten zuen dantza egiteko, baina irudian dituzuen hauek ez ziren kokildu. Bazkaltzen jandako babarrun, aza, odolki eta hirugiarrari digestioa egiten laguntzeko zer hobea eguzkitan dantzan hastea baino! Izan ere, **Andatza eguna** egun berezia da usurbildarrontzat; urtean zehar askotan igotzen direnak, noizean behin joaten direnak eta maiatzaren lehen igandean soilik joateko ohitura dutenak... denak biltzen dira egun honetan. Berandu xamar joan zirenak hamaiketakorik gabe gelditu ziren, 13.30ak aldean jatenak eta edatenak amaituta baitzeuden. Hurrengoan lehenago joango dira. **Eta zenbat jende gora begira?** Eguzkia hartzen ari zirela itxura egin eta bien bitartean hegazkinak zenbatzen!



Zumarte musika eskolaren musika kontzertua



Zumarte musika eskolak antolatuta musika ekitaldi polita eskaini zuten herriko musikariek joan den apirilaren 30ean Salbatore parrokan. **Perkusio taldeak** eman zion hasiera kontzertuari. Atabalaz, tinbalaz, bonboaz... hornituta bi abesti jo zituzten. Ondoren, **txistulari taldea** aritu zen, hauek ere Salbatore elizan bildutako jendeari bi pieza eskainiaz. Azkenik, **Miguel Angel Garcaren** zuzendaritzapean, **Zumarte orkestrak** bost abestiko saioarekin eman zion amaiera ekitaldiari. Orkestran Usurbilgo musikariez gain Orio eta Lasarteko musika eskolako zenbait musikari aritu ziren. Antza denez, herri txiki batean orkestra oso bat edukitzea ez da erraza.

10 urteko inhabilitazioa eskatu du fiskalak Jokin Errastirentzat

Aginagarra maiatzaren 8an epaitu zuten intsumiso izateagatik. Lehen ere, orain dela hiru hilabete, beste epaiketa bat izan zuen. Bertan, kode penal zaharra edo berria aukeratzeko esan zioten, baina berak ez zuen ez bata eta ez bestea aukeratu. Honela, bigarren epaiketa honetan fiskalak **sei hilabeteko atxiloketa eta 10 hilabeteko inhabilitazioa** eskatu zuen. Orain, **Jokin Errastik** epaia ezagutzeko hiru hilabete inguru itxaron beharko du.

Audientzia probintzialaren aurrean 40 lagun inguru bildu ziren. **"Intsumisioa, epaiketa fartsarik ez"** zihoen pankartaren atzean aginagarrari elkertasuna adierazi asmoz.



ASKATASUNA ALDARRIKATUZ GURE MENDIETAN

Maiatzaren 25ean Usurbilgo mendieta-
ra igo eta Euskal
Herriaren askatasu-
na aldarrikatzeko
aukera daukagu.
Euskal Herriko 600
gailurretan gauza
bera egingo da. Zer
dela eta? **Abialdian
askatasunaren ibilal-
dia martxan** delako.

"Euskal Herria, jaiki
hadi eta eman hadi
bidean..." leloarekin
orain dela 20 urte
Euskal Herria zehar-
katu zuen ibilaldia
egin zen. 20 urte
geroago gauzak
asko aldatu dira,
baina oraindik
Euskal Herriak ez du
bere burujabetasu-
na lortu. Horregatik,
berriro ere,
Abialdian martxan
jarri da. **Ekainaren
29tik uztailaren 26ra
bitartean**, Iruñetik



Aze laukotea! Hauek dira Antxeta jatetxeak maia-
tzaren 3an antolatutako **mus txapelketako finala**
jokatu zutenak. Ikusiko duzuenek **Iñigo Arrona** eta
Gabriel Sanchezek jantzi zituzten garaipenaren txape-
lak. **Isidoro Otero** eta **Jon Pintor**-ek bigarren postuarekin
konformatu behar izan zuten. Zorionak laurei, eta bere-
ziki egun berean osaba izan zen **Iñigo Arronari**.

Gernikara ibilbidea
egino da oinez
Euskal Herriaren
askatasuna aldarri-
katuz. **Usurbildik
uztailaren 20an
pasatuko da.**

Maiatzaren 25ean,
berriz, herriko 600
mendieta-
ra igo eta
Abialdianeko ikurra-
rekin argazki bat
aterako da.

BERTSOLARI GAZTE- EN TXAPELKETA

Hilaren **23an** Oiar-
do kiroldegian **Gi-
puzkoako Eskolarte-
ko Bertso Txapelketa**
finala jokatu da.
Orain arte lau kan-
poraketa izan dira,
eta finalean onenak
bilduko dira. Herri-
tarik ez da horien
artean, baina bertso

paperetako sailean
bai. **Imanol Zarautz**,
Mikel Aranburu eta
Jon Arriaga izan zi-
ren bertso paperak
idatzi zituztenak La-
sarte-Oriako kanpo-
raketan. Hauen arte-
ko sari banaketa ba-
pateko finalean
egino da.

LAPURRETAK ANDATZAN

Maiatzaren 4an
Andatza eguna izan
zen. Ez dakit bertara
hurbildu zen jendea
ohartu zen, baina
harmiarategiko
errotarria ez zegoen
han. Astebete edo
bi lehenago lapurtu
zutela uste da.

NOAUA ERREDIOS

Edorta Agirrek,
"Sagardoa plater-
an" liburuan **Noaua!**
errezeta bat eskaini-
tzen dio, "Sagardoz-
ko Noaua erredios
sorbeteda" hain zuzen
ere".



Hilaren 12rako deialdia egin zuen **Usurbilgo
Hodol Emaileen Elkartek** odola emateko. **64**
pertsonek bildu ziren guztira eta bakoitzak 400 z^m
eman zituen. Elkarteko kideak pozik zeuden **bost
emaile berri** agertu zirelako, eta guztiak **gazteak**,
gainera. Azken finean, adinagatik eman ezinik
gelditzen direnen lekua hauek hartuko dute.



Usurbilen **Sohütako Eperra** ikastolaren alde
egindako kanpaina uste baino arrakasta-
tsuago suertatu da. Guztira **600.000 pezeta**
bildu dira herrian. Horrez gain, ezti salmentare-
kin 300.000 pezeta lortu dira. Beraz, guztira
900.000 pezeta. Hasieran aurikusitako 500.000
pezetako helmuga ederki gainditu dugu.

KIROL KOPLA

Txomin
Urdanpilleta



Udarregiko
Gorputz
Hezkuntzako
arduradunak

Inaxio
Unanue



Gaur egun, nahiz eta ikastetxeetan Gorputz Hezkuntzako programa- zioak existitu, populazio gazteen artean ekintza fisikoen beherakada bat nabarmentzen ari da, batez ere, herrialde garatueta. Orain dela gutxi eginiko ikerketa batzuk diotenez, eskolaz kanpo ez da erregulariki iharduera fisikorik egiten eta honek eragin zuzena du gure gaitasun fisikoen mailan.

Haurra izaki aktibo bat da, honela aktibo izateari gogoz eutsi behar dio. Ez da kalterako nerabezaroan eta heldua izatean ariketa fisikoa erregulariki egiteko ohitura hartzea. Ekintza Fisikoa sustatu egin behar dugu: ikastetxeetan, aisialdirako elkarteetan, familietan, komunitatean, etab.

Orain aipatuko ditugu haur eta gazteengan ekintza fisikoak duen garrantziaren arrazoiak:

-Giharren iharduera eta gorputzaren pisua beharrezkoak dira eskeletoaren eta indarraren hazte nahiz garapen egokiak izateko.

-Bihotzean eta kardiobaskular-sisteman eragina du, honen funtzionamendua eta erresistentzia hobeagotuz.

-Gaixotasun kardiobaskularrak edukitzeko probabilitateak murriztu egiten dira.

-Pisuan eragina du. Orain gizenak direnak, gerora gizena izateko joera haundiagoa izango dute, 65 urtera iristeko probabilitateak gutxiagotuz.

-Medikuntza aldetik arazo bereziak dituzten haurrentzat lagungarria da.



Aginaga Sagardotegia txapeldun!

Aurten ere bai. laz bezala **Kontxako hondartzan nagusi** izan dira **Aginaga Sagardotegikoak**. "Kontxako hondartza Usurbila ekarri beharko dugu", horixe zioten pozez zorutzen zeuden jokalariek.

Ez zen erraza izan. Aukera ugari eduki arren ate aurrean ez zuten asmatu, eta golik gabe amaitu zen partidua. Penaltietan erabaki zen guztia. Usurbildarrek botatako laurak sartu zituzten, eta Bar Ignacio taldekoek bi huts egin zituztenez Aginaga Sagardotegia txapeldun.

Ja zazpi urtez jarraian iritsi dira finalera. Bingo Londres izenarekin lehenengo hiru urteetan, eta Aginaga Sagardotegiarekin lau azke-

nengoetan. **Markel Olaizola** hasierako talde hartatik jarraitzen duen bost jokalarietako baten esanetan, "lehen hiru urteetan txapelketa irabazi genuen. Ondorengo bietan ezin izan genuen garaipena lortu baina azkenengo bietan ez dugu hutsegini".

Iker Mugika, Mikel Bengoetxea, Pello Zubeldia, Imanol Eizagirre, Aitor Zubeldia, Mikel Zabaia, Josu Errekondo, Ker-man Errekondo, Ibon Borda, Xabier Kamino, Harkaitz Iparragirre, Aitor Arruti, Koldo Lertxundi eta Markel Olaizolak osatzen dute taldea.

Garaipena eskuratzeaz gain, Aginaga Sagardotegiko **Pello Zubeldia** denboraldi honetan, seniorretako jokalaria onena izendatu zuten.





Herriko igerilariek bi domina lortu zituzten Zarauzko txapelketan

Maiatzaren 10ean 178 igerilari gazte bildu ziren Zarauzko igerilekuan kiroldegiek antolatuta txapelketan. Hernani, Zarautz eta Azpeitiko gaztetxoekin lehia aritu ziren **Oihana Irazusta, Zuriñe Olasagasti, Maite Lopetegi, Nagore Maiz,**

Maria Furundarena eta **Julen Otsagabia usurbildarrak**. Azken honek zilarrezko domina lortu zuen benjamin mailako bular eran. **Nagore Maizek**, berriz, brontzekoa alebin mailako bular eran. Hala ere, partehartzea zen garrantzitsuenaren.



Gimnasia erritmikoko taldea puntaren-puntan

Maiatzaren 10ean Donostialdeko **Gimnasia Erritmikoaren** txapelketa egin zen Oiardon. Bertan, argazkiko **Betisa Carras-cok** lehen postua lortu zuen kadete mailan. **Izaskun Unanue, Uxo Benito, Eider Arruti, Ana Iturralde, Amaia**

Aizpurua, Elixabete Eizagirre eta Lorena Zapianek ere lehen postua eraman zuten alebinetan, eta **Maialen Lizaso, Nerea Kor-ta, Sara Lazkano, Ainhoa Unanue, Ainhoa Martin eta Itziar Otxagabiak**, berriz, 2. postua infantiletan.

TXIRRINDULARITZA

Aurreko alean **Joseba Zubeldiaren** garaipena ezagutzera eman bagenuen, oraingo honetan bere anaia **Haimarren** balentriak jasoko ditugu lerro hauetan. Afizionatu mailan, 19-20 urteko txirrindularientzat ziren bi proba irabazi berri ditu Urdaigakoak. Maiatzaren 3an denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Lizarran eta hilaren 10ean bigarrena Markinan. Azken laisterketa honetan ia proba erdian alde egin eta hiru minutu baino gehiagoko alde atera zion bigarrenari. Dagoeneko korritzen ariko diren Bidasoako itzulia irabazteko bide onean dagoela dirudi.



Usurbil aurrera Gipuzkoako herri arteko txapelketan

Herriko pelotariak hindartsu ditugu **Gipuzkoako herri arteko txapelketan**. Final zortzirenetan **Hernani** gainditu eta final laurdenetan, **Azkoiti**, arerio zaila, izango dute aurrez-aurre maiatzaren 16an, gaueko 21.00etan, Azkoitin eta

23an Zizurkilen jokatu diren partiduetan. Hernani kanporatzea ez zen erraza izan. Zizurkilen jokatu-tako etxeko partiduetan 2-1 nagusitu ziren eta Hernanin 2-1 galdu. Tanteoan 88-70 nagusitu zirenez aurrera egin dute usurbildarrek.

FUTBOL ARETOA

Antxeta futbol aretoko taldeak antolatutako txapelketako emaitzak dituzue hauexek:

Maiatzak 2-3

Iruretagoiena **6** Interplox **1**
Alkorta Harategia **9** Llompo pulpo **4**
Intringulis **7** Xagu Zaharrak **4**
A.T.P **2** Bar Usurbil **1**
Txirpi jatetxea **4** Xabier Taberna **6**
Aldabaldarrak **2** Irrati **5**
Saltxipi **1** Aizpurua **5**
Usurbil Optika **4** Sant Dalmai **2**

Maiatzak 9-10

Interplox **2** A.T.P **3**
Llompo pulpo **1** Iruretagoie. **4**
Xagu Zaharrak **5** Alkorta H. **1**
Bar Usurbil **1** Intringulis **7**
Irrati **4** Txirpi jatetxea **10**
Xabier Tab. **5** Usurbil Optika **4**
Aizpurua **5** Aldabaldal. **2**
Sant Dalmai **7** Saltxipi **4**

Sagardo egunaren lagunak: 350-400 inguru

16. Sagardo Eguna gainean dugu. Maiatzeko hirugarren igandea egun haundia izan ohi da usurbildarrontzat, baina guzti honen atzean lan ugari egiten duen talde bat dago. Sagardo Egunaren Lagunak dira, 10 kide inguru dabilta lanean eta guztia prest dute maiatzaren 18rako.

Sagardo Egunaren Lagunak. Izen hori jarri zioten orain dela hiru urte inguru Sagardo Eguna antolatzen zuen taldeari. Andatza elkartearen lehenik eta Akerra gaztetxeko kideak gero, arduratu ziren egun hau antolatzeaz. Bi talde hauek, Sagardo Egunaz gain, sagardoarekin zerikusirik ez zuten beste ekintza batzuk antolatzen zituzten.

1991. urtean ordea, aldaketak egon ziren. **Joxe Mari Iribar** "Txoko"ren esanetan, "Akerrako kideek erreleboa eskatzen genuen. Sagardo Eguna antolatzeari utzi-ko geniola esan genion udalari. Honek beste elkartei deialdia egin zien, baina inor ez zegoen prest atzeko lan hori egiteko. Gu beste koadrila batekin harremanetan jarri ginen eta ordutik hona hemen 10 kide inguruko talde bat gabilta lanean".

Izena, orain dela hiru urte eman zioten taldeari. Prestatzen ibiltzen direnez gain, egun horretan lan egin duten

guztiak osatzen dute talde hau. "Egun hau guk antolatzen badugu ere, gero jende askok egiten du lana, ez guk bakarrik. Gure nahia hasieratik Sagardo Egunean lan egin duten guztiak sagardoaren lagunak izatea da. Egun horretan nahiz beste zenbaitetan lagundu diguten guztien izenak bildu eta artxibo bat egiten ari gara" dio **Ainhoa Labakak**. 350-400 kide omen ditu taldeak, urtez-urte haunditzen baitoa artxibo hori.

Talde honek antolatzen duen ekintza nagusia Sagardo Eguna bada ere, beste ekintza batzuk egiten dituzte. Sagardoari buruzko informazioa zabaldu, erakusketak antolatu, liburuskak argitaratu,... sagardoa banatzea bezain garrantzitsuak dira beraienentzat. "Gure helburua sagardoa edari bezala bultzatzea da.-" dio "Txokok"-Mundu hau ezagutaraztea da

gure nahia. Adibidez, sagardoa txotxetik asko edaten da baina botellatik... Jendeak ez daki oraindik txirikoa prozesuan dagoen sagardoa dela. Benetako sagardoa botellakoa da".

Sagardo egunean 40-45 sagardogileen sagardoak biltzen dira; urte bakoitzean erakusketa ezberdinak jartzen dituzte eta azken urteetan dekoratua aldatu ez bada ere, gauzak konpontzeak nahiz frontiseko panelak lana franko eskatzen du. Guzti honek lan haundia ematen die Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideei, baina Joxe Mari Iribarren ustez urteetako esperientziak lan hori asko errazten du. "Hasieran erotu egiten ginen egun honekin. Urte bateko Sagardo Eguna iraillean amaitu eta hilabete berean hasten zen hurrengoa. Orain, ordea, lan monotono bat bihurtu da, denok dakigu zer egin, antolatuago gaude".

Sagardo Eguna usurbildarrentzat festa haundia izan arren, jendearekin borrokan aritzen direla aitortu digute taldeko kideek. "Erraztasunak eman beharrean oztopoak jartzen dituzte, udaleko material arduradunak, tabernariak... Guk erabaki bat hartzean ez goaz inori kalte egitera. Garrantzia sagardo festak du, hortik aurrera..."

Josu Aranberri



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



Ekaitze

Bideo eta Argazk

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

Aldizkariaren azken orriotara iristera sagardoari buruz dexente gehiago jakingo duzue, noski. Orain, egunaren zain egotea falta zaigu. Maiatzaren 18an zer edana eta zer ikusia izango da! Baina lantxo bat gehiago ere jarri nahi dizuegu: sagardo postuak kontatzea. Ze, lehiaketako galdera hauxe da:

Zenbat sagardo postu egongo dira sagardo egunean?

Kale nagusiko buzoira iristen zaizkigun erantzun zuzenen artean, **Zumeta** jatetxean bi pertsonentzako afari bat zozketatuko dugu. Animatu eta idatzi!



Oraingo honetan **Anjel Jimenezekin Sekaña** jatetxera joan gara, berari egokitu baitzaitzaion gure lehiaketako afaria. "*Lehenengo aldiz parte hartu dut eta zorte handia izan dut, bai!*". Benetan pozten gara, eta ea otordu goxo bat dastatzeko aukera ondo aprobetxatzen duzun. On dagizula!

Maiatzaren 4ean gehienok Andatzara joango zireten, baina Mendizorrotz, Bordatxo eta Arraten ere egon zen jendea egun osoan. Bai, **Noaua!**ko korrespontsal bereziak ziren. Eta zer egiten zuten han? Ba, pasatzen ziren **hegazkinak kontatu** lehiaketarako erantzuna bilatzeko.

Gero, denak frontoi atzean bildu eta "rekuentoa" egiten hasi ziren, baina zenbakiak ez ziren berdinak. Mendizorrotzekoak azkeneko hirurak ez zituen ikusi itsasaldetik lainoa sartu zuelako.

Badaezpada Hondarribiko aireportura deitu genuen. Han 49 pasa zirela esan ziguten. Baina Arratekoak bi aeraplano ere kontatu zituen eta hоек zenbatuta...

51.

Beraz, azkenean, erantzun guztien artean egin dugu zozketa, eta Londreserako hegazkin bidaia irabazi duena **Iñaki Zugasti** izan da. Zorionak **Iñaki** eta bidaia on!

komikia



BORDATXO
EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42



Aginaga
36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA Txerrikumea,
Tuleta eta Arraia

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

MAIATZAK 16 ostirala

- Ipar Irlandadako "More-Power to your" folk-rock taldearen kontzertua Oiardo kiroldegian. Gaueko 22.00etan. Sarrera 500 pta.

MAIATZAK 17 larunbata

- Larrua Truk taldeak Madrilgo Festimaden (Madrilen) kontzertua emango du.
- Gure Pakea Zahar egoitzak antolatuta, Burgosera bidaiara egingo dute. Irteera goizeko 7.00etan izango da udaletxe aurrean.

MAIATZAK 18 igandea

- XVI. Sagardo eguna ospatuko da frontoi eta dema-plazan. Urtero bezala, sagardoa dastatzeko aukera izateaz gain, edari honekin eta sagarrarekin lotura duten hainbat gauza ezagutzeko aukera izango dugu.
- Senideak-en eskualdeko enkar-telada 13.00ean, frontoi atzean .

MAIATZAK 19 astelehena

- Euskal Herria Askatu!ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.
- Eskuz-banakako txapelketa amaitu da, eta Andatzpe-Peña Pagolak antolatutako porra sei pertsonak asmatu dute. Gaur, gaueko bederatziatan, bi sariak nork eramango dituzten jakiteko zozketa egingo da Andatzpe elkartearen

MAIATZAK 21 asteazkena

- Udarregi ikastolaren egunaren ekitaldiak hasiko dira "Hirugarren Mundua. Ipar/Hego arteko desberdintasunak" diapositiba em-



Ziortzak aurten ere udako kanpamendua antolatuko du Peñaloscintos-era, Cameros-eko Ortigosan (Errioxan). Kanpaldiko lehen txanda uztailaren uztailaren 8an hasi eta 22an amaituko da, bigarrena uztailaren 18an hasi eta 31 bitartean. 1981-84 bitartean jaio ziren neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. Izena maiatzaren 28tik 30 bitartean ahal izango da, apaiz etxean arratsaldeko 19.00etatik 20.00etara.

naldia eta hitzaldia. Bertan, Juanma Balerdi, "Euskal Fondoa" erakundeko ordezkariak, Karmele Hevia, erakunde hone-tako partaideak eta Usurbilgo zinegotziak hartuko dute parte. Udarregi ikastolan, arratsaldeko 17.30etan.

- Andatza KKEk antolatuta, Felipe Uriartek egindako "Pamir-eko bihotzean" diapositiba emanaldia ikusteko aukera izango dugu. Udarregi zaharrean, arratsaldeko 20.00etan.

MAIATZAK 23 ostirala

- Gipuzkoako Eskolarteko XVII. Bertsolari Txapelketako finala ospatuko da Oiardo kiroldegian, arratsaldeko 16.00etan.

MAIATZAK 26 astelehena

- Euskal Herria Askatu!ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.

MAIATZAK 27 asteartea

- Udarregi ikastolaren egunaren

ekitaldien barnean, gaur "Ikastolen historia eta etorkizuna" eta "Partaideren zergatia, oraina eta geroa" hitzaldiak entzuteko aukera izango dugu. Bertan, Antonio Campos, Ikastolen Elkartearen Lehendakaria eta Jose Luis Sukia, Partaideko gerentek hartuko dute parte. Udarregi ikastolan, arratsaldeko 17.30etan.

MAIATZAK 30 ostirala

- Udarregi ikastolaren egunaren barneko ekitaldietan, gaur "Haur hezkuntzako hauraren nortasun garapena" hitzaldia entzuteko aukera izango dugu. Bertan, Maria Jesus Uranga, psikomotrizista-hezitzaileak hartuko du parte. Udarregi ikastolan, arratsaldeko 17.00etan.
- Senideak-en manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

- ✓ XXI. Santixabel Bertso paper Lehiaketa. Gaia: Frontoiaren eraberriketa. Edozein doinu eta

BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETAKO URTE OSORAKO

Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
noaua!



neurritan gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso. Udaletxean utzi behar dira, **ekainaren 27 baino lehen**.

- ✓ **Zubieta Pilota Elkartek Batzar Nagusia** ospatuko du maiatzaren 17an. Goizeko **10.30**etan, **eskola txikietan**.
- ✓ **Usurbildik kanpo jaio** diren euskaldunen **bazkarian** (Aginaga Sagardotegian, ekainaren 7an) parte hartzeko izena emateko **epea maiatzaren 17an** amaitzen da. Tabernetako zerrendetan eman dezakezue izena.
- ✓ **Monedero** marroia, azpiko ertzak gorriak, loteria dezimo

bat eta diruarekin Bizkarren aurkitu zuten duela hilabete. Galdu duenak udaltzaingoarekin jar daiteke kontaktuan.

- ✓ **Pisua saltzen dut** kale nagusian. 3 gela, sala (tximiniarekin), 2 komun, sukaldea eta ganbararekin. Telf.: 37 29 22.
- ✓ **Maite Agirresarobe, Susana Martin, Pelex eta Patxi-txikik pintura eta egur erakusketa** irekiko dute datorren **maiatzaren 22an**, arratsaldeko **20.00**etan Motzaneako azpiko lokalean (Txiriboga tabernaren aldamean). Astegunetan: 17.00etatik 21.00etara. Asteburuetan: goizez, 12.00etatik 14.00etara eta

arratsaldez, 18.00etatik 21.00etara. Ekainaren lehenengora arte zabalik egongo da.

LANPOSTUAK

- ✉ **Zizurkilgo** Udala. **Liburuzain** bat behar da. Izena emateko epea: 97-VI-2. Informazio gehiago G.A.O.ko 82. zenbakian aurkituko duzu.
- ✉ **Aretxabaletako** Udala. **Kiroletako teknikari** bat behar da. Izena emateko epea: 97-VI-2. Informazio gehiago G.A.O.ko 82. zenbakian aurkituko duzu.

Kirol agenda

MAIATZAK 16 ostirala

- **Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketa. Azkoitia- Usurbil.** Azkoitian gaueko 21.00etan joaneko partidua.

MAIATZAK 17 larunbata

- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Leizaran.** **Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko **16.30**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo**i partidua (N): **Zarautz- Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Ereintza.** **Oiardo** kiroldegian, arratsaldeko **18.00**etan.
- Bigarren mailako **eskubalo**i partidua (M): **Urola- Usurbil K.E.**

- **Futbol** partidua (N): **Usurbil F.T.- Oiartzun K.E.** **Areto futboleko** partidua (M): Gubi Zarautz- Antxeta jatetxea.

MAIATZAK 18 igandea

- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Oiartzun K.E.A.**
- Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **Usurbil S.T.- Kevian Sport.**
- Zubietako **errebote** partiduak jokatu dira **Senpereko plazan** goizean. **Senpere 1- Zubieta 1. Senpere 2- Zubieta 2.**

MAIATZAK 24 larunbata

- Bigarren nazionalako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Ormaiztegi.** **Oiardo** kiroldegian,

arratsaldeko **17.00**etan.

MAIATZAK 23 ostirala

- **Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketaren** partidua. **Usurbil- Azkoitia. Zizurkilgo frontoia**

MAIATZAK 24 larunbata

- **Areto futboleko** partidua (M): Antxeta jatetxea- Cage Boulevard.
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **San Ignacio C.D.A.- Usurbil F.T.**
- Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **Lazkaoko S.T.- Usurbil .**

MAIATZAK 25 igandea

BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza,4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

Bazkideok!
Gogoratu maiatzaren
18an, Sagardo egunean,
bazkide argazkia atera
behar dugula!

Andatza
karr ozeria
Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea ☎ 36 36 77
USURBIL

Eskaintzarik zabalena

urDAiRA



Eguneroirekita, igandegauetanezik.
Bertakosagardoberriaprobatzeko aukera.

Aginaga
Tlf. 37 26 91

AGiNA GA



Eguneroirekiaastelehenetanezik.
Menu aukera zabala, sagardotegikoabarne.

Aginaga
Tlf. 36 67 10

Araeta



Urteosoan txotxetik bertako sagardoa.
Egunerozabalik. Lekulasaietaaparta.

Zubieta
Tlf. 36 20 49

ilLunbe



Aurtengo sagardoa dastagai.
Sagardotegietajatetxerako aukera.

Txoko alde
Tlf. 37 16 49

iruin



Bertakosagardoberriadastagai.
Sagardotegiko giroa eta menua.

Zubieta
Tlf. 36 12 29

saizar



45 kupeletako sagardoa
dastagaidenboraldiosoan.

Kalezar
Tlf. 36 22 28

N

.U

.



16.SAGARDO EGUNEKO GEHIGARRIA

1997ko maiatzak 18

Usurbil, 20. Zenbakia



**USURBILGO
SAGARDO
EGUNAREN
LAGUNAK**

Kinttin Seguroa: "sagardoegileek asko ikasi dute azken urteetan"

Kinttin Seguroa sagardozale amorratua da. Txiki-txikitatik ezagutzen du edari preziatu hau. Baserrian urtero egiten zuten eta sagardoaren inguruko trukoak ikasiak ditu. "Edaririk onena sagardoa da", hori ez du zalantzan jartzen. Sagardo egunaren lagunek omenaldia egin zioten iazko Sagardo Egunean. Aurreko egunean alaba ezkondu zenez, goizeko bostetan ohera joan eta asko kosta omen zitzaion jeikitzea.

Maiatzeko hirugarren igandean Sagardo Eguna. Zer oroitzapen dakarzkizu egun horrek?

Oroitzapen oso onak. Urte asko eman ditut sagardoa botatzen, eta beti gustora. Lehenengo lau urteetan ez nintzen atera, gazteentzat zelakoan edo, baina lagunek animatu nindutenetik iaz arte hor jardun izan naiz sagardoa botatzen. Nahiz eta jendearen ustea bestelakoa izan, gazteek lan asko egiten dute egun honetan. Horren ondorioz, urtez-urte gero eta jende gehiago hurbiltzen da Usurbila.

Ze postutan kokatzen zinen?

Etxebeste kaletik frontoira sartzera koan eskubitara, Laboraren aurrean. Hori izan da nire betiko lekua. Hor hasi nintzen sagardoa botatzen eta amaitu ere bai. Botatzaile laguna eta sagardotegia, ordea, ez dira beti berdinak izan.

Aurten mahonezko galtzak, alkandora zuria eta txapela jantziko dituzu?

Ez, aurten ere ez naiz sagardoa botatzen arituko. Iaz



Arg: Ekaitz

omenaldia egin zidaten, inbidia piska bat ere pasa nuen, baina gazteei lekua utzi behar zaie. Hala ere, jendea faltako balitz sagardoa botatzen laguntzeko prest egongo nintzateke. Hainbeste gazteren artean aitona bat edo bi egoteak itxura polita ematen du.

Sagardoa, txinparta sortzeko altura batetik bota behar da. Usurbildar gazteek ba al dakite sagardoa botatzen?

Nik uste dut baietz. Lehenengo urtean behe xamarretik botatzea normala da, kontutan izan 18 urte inguru dituztenean hasten direla sagardoa botatzen eta ez da inoren nahia Sagardo Egunean ridikulua egitea. Nik hamar urteetan ikusi dudaren arabera kortxoa ateratzerakoan izaten dira komeri gehienak. Gazteak izanik indar askorik ez, eta ezinean ikusi izan ditut asko eta asko.

Baserrian sagardoa egiten laguntzen urte askotan ibili

zara. Zenbat sagar bildu ote duzu?

Jakin ezazu, hainbeste izango da... Denbora ugari eman dut sagar biltzen. Iaz, adibidez, koinatuaren baserrian mordoa bildu genuen, gehiegi nire ustez. Guretzat sagardoa egiteko erabili genuen zati bat eta gainontzekoa saltzeko. Kontutan hartu behar da iaz sagar ugari izan zela inguru honetan. Aurten, ordea, sagastiek ez dute hainbeste emango.

Zer gertatu da ba?

Ez dakit zer gertatu den, baina 1997an sagar gutxiago izango da, erdira ere ez da iritsiko. Eguraldi onak egin dituen arren zerbait pasa da hor.

Sagardoa egiteko sagarra bildu behar da. Lehen orain baino gehiago biltzen zen?

Bildu bai. Lehen asko biltzen zen, bai onak eta bai txarrak. Lehen dena biltzen zen, zego-

Goizeko 11.30ak, 15. Sagardo Eguna. Festari hasiera emateko Kinttin Seguroari omenaldia eskaini zitzaion. Oroigarri bezala zapi bat eman zitzaion. 10 urteetan botatzaile lanak egin ondoren erretiratzeke garaia zela pentsatu zuen Kinttinek.

en guztia zakuan sartu eta sagarra jotzeko erabiltzen zen. Orain berriz, ustelak nahiz erdi ustelak bota egiten dira, ahalik eta sagardo onena egin asmoz.

Sagardoak badu sekreturik?

Ez dakit sekretua den, baina sagarra jo, tolarean zanpatu eta ateratzen den muztioa kupelean edukitzerakoan kontu haundiz ibili behar da. Sagardo bizia, miketza kupele-ratuz gero denbora gutxiago eduki behar izaten da kupele-an. Mimo haundiz zaindu behar da sagardo, aldian behin probatuz. Eguraldiaren gorabeherak, hego haizeak eragin handia du kupelean dagoen sagardoan eta ondo zaintzen ez bada gero alferrikakoa da negar egitea. Normalean bi edo hiru hilabetez eduki behar izaten da sagardo kupelean.

Sagardotegietak
o sagardo
baino gustokoa-
goa dut baserri-
koa. Agian txiki-
tatik etxeko
sagardoarekin
ohitu naizelako
izango da.

Horrela bada, sagardo boteilan sartzeko prest. Hala ere lehen baserrietan ez zen txotxetik asko edaten.

Garai batean sagardo bere puntuan zegoenean enbotelatu egiten zen. Behin boteilan sartu ondoren segituan edatea baino hobe da 2-3 hilabete bere horretan, ukitu gabe edukitzea. Lehen, askotan, boteilak falta izaten ziren, eta horregatik, sagardo kupele-an mantentzeko ohitura zegoen. Bazkari edo afarirako behar zenean kupelera joan, kanila ireki, txarroa bete eta mahaira eramaten zen. Noski, sagardo hura galdu egiten

zen, piskanaka-piskanaka oxigenoa sartzan baitzitzaion.

Oraingo sagardogileek lehengoeak baino abilezia gehiago dute sagardo egite- rakoan?

Abilezia gehiago ez nuke esango, jakituria haundiagoa baizik. Garai batean baserri-rrak sagarra eta sagardoari buruz oso gutxi zekien. Orduan, baserrietan sagardo egite-rakoan bi edo hiru sagar mota bakarrik erabiltzen ziren. Sagardo bera, ilunagoa, pintsuagooa ateratzen zen. Ordu-tik hona sagardogileek asko ikasi dute. Sagar mota ugari nahasten dira, zer nolako sagardo egiteko zer sagar nahastu behar den badakite... Ez sagardotegietan bakarrik, baserri-arrak ere asko ikasi dute.

Sagardotegiko sagardo, ala baserrikoa nahiago?

Baserrikoa, zalantzarik gabe. Bestea ere ona izaten da, baina baserri-rako egiten den sagardoak badu "zerbait berezi" hori. Agian, txikitatik baserri-ko sagardoarekin ohitu naizelako izango da. Sagardotegietan sagardo asko egiten da gainera...

Baserrietan sagardo egiteko ohitura galduko al da?

Azken urte hauetan sagardo egiteko ohitura hori galtzen doa. Lehen baserri gehietan tolarea zegoen, eta bakoitzak bere sagardo egiten zuen. Baserrietan lehen familia ugaria izaten zen, sagardo edatea oso zen gustokoa eta sagardo egiteko guztiek egiten zuten lana. Azken aldian gazteek baserria uzten dute herrira joateko, ardoa eta ura edateko ohitura zabaldu da. Honela sagardo egiteari utzi zaio. Hala ere, badirudi berriz zuzpertzten ari dela, sagardo egiteko grina piztu da.

Usurbil sagardo herria da orain ere?

Usurbil beti izan da sagardo herria. Lehen orain baino gehiago? Baliteke, nahiz eta orain ere asko egiten den. Sagardotegiez gain, etxerako egiten duen baserri asko dago, ez lehen bezainbat baino...

Sagardo edo ardoa?

Duda izpirik ez. Sagardo baino edari hoberik ez dut ezagutzen.



Ordurarte postu batean ateratzen zituen kortxoak. Iaz, ordea oholtza gainean ireki zuen 15. Sagardo eguneko lehen sagardo botella

16. sagardo eguna

Iñaki Larrañaga: "Gaur egun 300.000 sagarrondo inguru daude Gipuzkoan"

Iñaki Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Fruitu Gara-penerako teknikoa da. Orain dela 15 urte, sagardogileak kexu ziren: sagastiak zahartu eta sagar mota ugari galtzen ari ziren. Horregatik Gipuzkoako sagar eta sagarrondoak aztertzeari ekin zioten. Ordudanik, sagardotarako sagarrondoak landatzeko kanpaina daramate aurrera.

Zerk bultzatuta hasi zineten sagarrondoak aztertzen?

1982 aldera, garai bateko sagar mota ugari galtzen ari zirela jabetu ginen. Honela, Gipuzkoako sagar mota ezberdinen mentuak hartu eta Hondarribian sortu genuen mintegi batean txertatu genituen. Hurrengo pausua, landareak zabaltzea zen. Horregatik, Gipuzkoan sagardotarako sagarrondoak landatzen zituztenentzat dirulaguntzak sortu ziren.

Dirulaguntza hau nork jaso dezake?


Baldintza batzuk bete behar dira: landareak "Zubieta Landetxea" mintegian erostea, gutxienez bost barietate landatzea, eta sagarrak etxerako edo Gipuzkoako Sagardogileen elkarteei saltzeko izatea.

Zenbat sagar mota jaso zenuzuten?

60 bat barietate. Sagar hoienez azukre, likido, garraztasun kopurua eta lorealdiak aztertzea erabaki zen (noiz loratzen den mota bakoitza, goiz edo berandu etortzen ziren...). Lan honen emaitzekin gaur egun gomendatzen ditugun 12 barietateak aukeratu ziren.

Mota hauekin bakarrik egiten al da sagardoa Gipuzkoan?

Ez, guk mota hauek gomendatzen ditugu, baina antzeko-



ak diren sagar ugari daude, sinonimia haundia dago, Aranburu sagarra eta txori sagarra berdinak dira, Ibarbi sagarra eta errezila ere bai...

Sagardoa egiteko zer sagar mota landatzen da gehien?

Gehienbat sagar gazia. Sagargeza gehiago zegoenez sagardogileek gazia eskatzen zuten, eta hori txertatzen hasi ginen, txalaka, urtebia...

Zuek lanean hasi zinetenean baino sagarrondo gehiago dago orain?

Baserrietan edari nagusia sagardoa zenez, Gipuzkoan sagasti ugari zen lehen. Piskanaka-piskanaka beste edariak sartuz joan ziren, eta honek sagastien beherakada eragin zuen. Hala ere, azken urteotan sagastiak ugaritzen ari dira. Urtero 8.000 landare inguru landatzen dira eta gaur egun 300.000 sagarrondo inguru dago Gipuzkoan.

Sagardogileek sagarraren gaineko ezagutza haundia dute orain?

Sagarrari buruzko datuak beti egon dira. "Sagarraren albuma" mende honen hasieran egin zen. Laffitek lan oso ona egin zuen. Komunikabide falta zen

garai hartako etsai nagusia. Gaur egungo hedabideekin aurrerapenak segituan iristen dira sagardogileengana. Hau-ek badakite zein diren onenak, nahasketak nola egin ...

Kanpotik sagar asko ekartzen da?

Lehen bezainbat ez, baina oraindik bai. Bertako sagastiak gero eta gehiago direnez, hemengo sagarra dagoenean ez da kanpora joaten. Aurten sagar asko izan da, erdia baino gehiago hemengoa erabili da. Datorren urtean ez badago, noski, sagardoa edan nahi badugu sagardogileek non-baitetik ekarri beharko dute, kanpotik.

Harreman ona duzue sagardogileekin?

Lehen denon artean hartzen genituen erabakiak. Azkenaldian gure arteko harremana asko hoztu da. Azterketa hauek beraientzat dira mesedegarri, ez beste inorentzat, eta portzentai bat beraiek ordaintzea bidezkoa ikusten dugu. Baina ordaindu behar denean sagardogile gehienek atzera egiten dute. Hala ere, sektoreak ez dauka argi egin beharreko azterketak zeintzuk diren.

Sagardoaz ikasi eta asetzeko bi liburu argitaratu dira

XVI. Sagardo Egunarekin batera bi liburuxka argitaratu ditu Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak. Jakoba Errekondo eta Iñigo García de Eulatek egindako "Euskal Herriko Sagardoa" bata, eta Edorta Agirrek prestatutako "Sagardoa platerean" *jaki goxoa* bestea.

Euskal Herriko sagardoari buruz zer jakin nahi duzu? Hortxe duzu **Jakoba Errekondo** eta **Iñigo García de Eulatek** egin duten liburua. Ez da hiru kiloko entziklopedia eta hitz potoloak jartzea ahaztu zaie.

Sagardoari buruzko oinarriko informazioa ematen duten 83 galdera eta erantzun jasotzen dira. Sagardoa zer den, bere historia, ezaugarriak... sagardoaren inguruan zalantzarik baduzu bertan izango duzu erantzuna. Hiztegia, bibliografia, Sagardogileen Elkar-teak eta sagardoa beraiek egin eta saltzen duten 96 sagardotegien berri ere ematen du liburua.

Argitarapena Sagardo Egunaren Lagunak eta Elhuyarren artean egin da. Udala izan da laguntzailea, eta horregatik Usurbildarrok dohainik jaso ahal izango dugu liburu hau. Liburudendetan 700 pezetan eta Sagardo Egunean 500 pezetan salduko da.

Durangoko azokarako gazteleraz eta frantzesaz argitaratzeko asmoa dute liburuxka hau.



Sagardoaz bustitako 18 errezeta

"...Sagardotxo maitea, edari paregabea..." behin baino gehiagotan abestu dugu usurbildarrok. Baina, sagardoa basoan hartu beharrean platerean hartzen badugu? Edorta Agirrek, "Sagardoa platerean" liburuan, 18 errezeta usurbildar, ematen dizkizu.

Euskaldunon Egunkarian igandero gastronomia orria osatzen duen Zubietako idazleak ez ditu nolanhiko izenak asmatu bere errezeptentzako: Barazki eta fruten "Udarregi" entsalada, Etumetako patatak sagardotan, Urdaigako zubiko ahatea sagarrekin, Txerriukondo egosia sagardotan, Ramon Uriberen estilolan, Xomororen ongi-etorriko sagar-tarta etab.

XVI. Sagardo Eguna eta hurrengoaren artean 18 errezeta hauekin moldatu beharko zarete, baina datorren urtean liburua lortzeko asmoa dute. 150 pezetaren truke lor dezakezu liburuxka kurioso hau.



Ana Aizpurua

Sagardo eguneko antolatzaile ohia

XVI.ean aidanez

Orain dela 17 urte, sagardoaren egoera tristea ikusita **Sagardoaren Feri** bat antolatzea bururatu zitzaigun.

Andatza Kultur Kirol Elkartearen sentsua zen eta partaideak behar ziren laguntzak, kontaktoak eta medioak lortzeko gai ginen.

Zergatik **Sagardo Eguna** bat? Orain aipatuko dudan egoerari aurre egiteko:

-Sagastiak gutxitzen zihoazen.

-Baserriko tolaireak eta sagardoa egiteko ohitura desagertzen.

-Sagardoa edateko zaletasun eza eta aukera gutxi zegoelako.

-Sagardoarekin lotutako kultura berreskuratu behar genuelako.

Harrezkero, helburuak neurri batean bete direla esan genezake. Gaur egun jendeak ondo ezagutzen du sagardoa, noiz egiten den, nola, zer urte garaitan... Dastaketa ugariak zaletasuna piztu dute eta noiznahi eta nonnahi aurkitu dezakegu sagardoa, beste edarien pareko.

Sagardogileak eta administrazioak ere bultzatu dituzte bertako sagarren landaketak, eta gaiak eskaintzen zituen arlo gehienak jorratu ditugu erakusketen bidez (prozedura, landare-lore, kupelak, sagarkiak, atzerriko sagardoak...)

Usurbilgo herriari dagokionez berriz, festa xume baino garrantzizko hark, beste oiartzuna eman dio. **Sagardoa** eta **Usurbil** lotuta daude. **Festa haundi bat** bilakatu da, sagardotegi erraldoi bat (apainketa lanak ikusita) eta horregatik talde, elkarte eta biztanle guziok parte hartzen dugu. Batzuk lanean, besteak laguntzen, eta denak **bertan geratuz!**

Zorionak halere, sagardogileei! Beraiek jartzen baitute egun hontako "mama goxua".

Joxe Anjel Aginaga: "2004. urterako %85a bertako sagarra izango da"

Usurbilgo Sagardo Egunean sagardogileak dira protagonista nagusi. 40-45 sagardotegitako sagardoa probatzeko aukera paregabea izaten da bertan. Joxe Anjel Aginagak, Illunbe sagardotegiko jabeak, urtero eskeini ohi ditu bere sagardo botelak. Bera da egun Gipuzkoako sagardogileen elkarteko lehendakaria. Martxoan aukeratu zuten eta beste lau urtetan egon beharko du elkartearen lehendakaritzan.

Elkartearen helburu nagusiak zeintzuk dira?

Sagardo maila zuzen eramatea da helburu nagusia, bere gurdibidetik eramatea. Zer gertatzen da? Sagardo kontua okertzen ari da gaur egun. Sagardoa egin ez, baina txotxetik sagardoa saltzen duten gero eta sagardotegi txiki gehiago daude. Sagardotegi izena eman arren, hauek ez dira sagardotegiak. Sagardoa elaboratzen den tokia da sagardotegia. Sagardoa egiten duenak eta saltzen duenak ez du izen bera eduki behar.

Nola konpon daiteke arazo hori?

Banaketa bat egin behar da eta izen ezberdinak eman. Asturiasen "sidreria" sagardoa saltzen den lekua da eta "sidreria llagar" sagardoa egiten dena. Hemen ere antzeko zerbaitekin egin behar da, kontzeptu bakoitza garbi jarri. Hori guztion artean egin beharreko lana da. Euskal Herri mailan ez dakit zer izen jarri behar diren,



sagardotegi tolarea edo antzeko zerbaitekin. Hiztegia begiratzen badugu sagardotegia sagardoa egiten den tokia da

Azken urteetan sagardoaren zat euskal labela eskatzen ari zarete.

Orain arte ez digute kasu haundirik egin. Gipuzkoan sagar gutxi biltzen zen eta aitzakia horrekin ez ziguten entzuten. Aurten, ordea, zazpi milioi sagar bildu dira, eta horrek karga handia du. Labela laister etorriko da, baldintza batzuk jarri, horiek bete eta aurrera. Labela oso helburu garrantzitsua da. Produktu txiki ugari dute labela, hainbeste milioi mugitzen dituen sagardoak berriz, ez du. Hori penagarria da.

Baserritarrek gurekin kontsultatu behar dute, guk baitakigu dagardo ona egiteko zer motatakosagarra behar

Hain garrantzitsua da labela lortzea?

Bai, dudarik gabe. Labelarekin asko hobetuko da produktua. Sagardogile guztiok sagardoaren kalitatea ontzeko ahalegin gehiago egingo genuke. Babarrunek, txakolinak, haragiak badute, guk zergatik ez?

Zer egin behar da sagardoaren kalitatea ontzeko?

Sustraitik hasi behar da lanean. Sagar landare onak jarri, hauek ondo zaindu... bide horretatik abiatu behar dugu. Azken urteetan pauso handia eman da arlo horretan, sagarraren kalitatea gero eta hobea da. Baserritarra eta sagardogileen artean landaketak ondo egiteko lotura haundiagoa beharrezkoa da. Gurekin kontsultatu behar dute, guk baitakigu sagardo ona egiteko zer motatakosagarra behar dugun. Orain arte ez gara jabetu, baina produktua hobetzeko sagarra etxean eduki behar dugu. Garraiatzerakoan min handia egiten zaio sagarrari. Bertatik-bertara mugitzen dena berriz, kalitatez hobea da.

Hemengo sagarra, baserrietakoa ez da zaindu behar adina. Ados zaude horrekin?

Arrazoi duzu, bai. Gipuzkoa sagarra izateko oso toki ona izan arren, ez zaio kasurik egin, ez zaio garrantzirik eman; baserritarrari burla egin zaio. Guk, baserritarra pozik egotea nahi dugu. Iaz, sagarra sagardotegira ekarri eta 32 pezeta ordaindu zitzaion kiloko, nire ustetan oso prezio ona. Baserritarra, sagardogilea eta administrazioaren arteko lotura oso garrantzitsua da.

Zer toki du administrazioak guzti honetan ?

Kanpotik sagar asko ekartzen zenez, administrazioak kasu gutxi egin digu. Beraiek nahi dutena da sagarra bertakoa izatea. Aurreko urtean, Gipuzkoan egin zen sagardo produkzioaren %65a hemengo sagarra zen, eta horrek pisu handia du. Iaz, administrazioan label kontuak entzun genituen. Nire aurreikuspenen arabera 2004. urterako agian %85a hemengoa izango da.

Hemengo sagarraren eta kanpokoaren artean ezberdintasun handia al dago?

Beti hemengo eta kanpoko sagarrak hitz egiten dugu, baina hori, ohitura txarra da. Sagardotez hitz egin behar da, gaziaz, gezaz, mikatzaz... Hemen mota batzuk daude eta han beste batzuk. Askotan Galizia aipatzen dugu, Galiziako sagarra. Azken finean sagar gaziaz hitzegiten dugu Galiziako sagarra aipatzean. Askotan sagardogileek handik ekartzen dute sagarra. Zergatik? Hemen gazia falta delako.

Txotxeko sagardoak izugarritzko arrakasta izan du. Boteilakoak berriz, ez hainbeste. Zer gertatzen da hor?

Txotx garaia sagardoa nolakoa datorren jakiteko da. Sagardotegi ezberdinetan

"Arratsaldean ez da sagardorik banatu behar"



Zer iruditzen zaizu Usurbilgo Sagardo Eguna?

Oso egun polita iruditzen zait, ondo antolatua. Hala ere, beste sagardo egunekin batera akats handi bat ikusten diot: arratsaldean sagardoa banatzen da. Honek ez luke horrela izan behar, arratsaldez jendea "desmadratu" egiten baita. Sagardoa 3.00rak alderarte banatu eta arratsaldean beste zerbaitegin behar litzateke. Aurten Donostian hori egin dugu eta oso ondo aterata da.

Ez dira sagardo egun gehiegi egiten?

Azken aldian bai. Sagardo eguna antolatzea modan jarri da eta herrietan ezezik

sagardoa probatzen da enboteilatutakoan erosteko. Benetan bultzatzen behar dena sagardo boteila da. Boteila da sagardotegiaren etorkizuna, hori garbi eduki behar dugu. Boteilak saltzen ez badira ezin da sagardoa egin. Hau bultzatu behar da ahal den guztia, eta hori gutxi litzateke. Boteila da sagardotegiko nagusia. Jendea mentalizatu behar da sagardoa boteilatik edan dezan, eta erakutsi behar zaio zer tenperaturan edan behar duen, ze janarekin... Boteila saltzen bada sagardoa izango da, bestela ez. Tristeia izango litzateke %100 hemengo saga-

auzoetatik deitzen digute sagardoa eramateko. Hau moztu beharra dago, sagardogileak erretzen ari baikara. Gipuzkoako Sagardogileen elkartetik moztu behar dugu hau. Sagardo egun garrantzitsuenetara eraman behar genituzke gure sagardoak.

Sagardo egunak garrantzitsuak dira zuentzat?

Bai, noski. Boteilako sagardoa ezagutarazteko bitarteko bat izan daiteke. Jendeak sagardotegi ezberdinetako sagardoak probatzen dituzenez onuragarria da guretzat. Beti ere gero boteilako sagardoa erostera animatzen badira, bestela ez dugu gure helburua lortzen.

rra izatea eta sagardoa saldu ezinik gelditzea. Boteilatik edateko kultura bultzatu behar da, oso polita da eta. Horretarako sagardoa botatzen jakin behar da. Taberna bakoitzean sagardoa ondo botatzen dakien pertsona batek egon beharko luke.

Sagardo boteila saltzen al da?

Ondo saltzen da, baina lan piska bat eginez gero gehiago sal daiteke. Gipuzkoatik kanpo merkatu zabala dago, eta hor sagardoak lekua badu. Hor zabaltzeko, Kooperatiba bat sortu nahiean nabil, baina inor ez da animatzen.



Usurbilgo tolareei buruzko erakusketa motzanean

1982an lehenengo Sagardo Eguna antolatatu zenean, herriko baserrietan zeuden tolareen bilduma bat egin zen. Sagardoa sustatzen hasi nahi eta herrian ziren aztarnak behintzat jaso behar zirela eta egin zen erakusketa hura. Argazki batzuk eta orduan jasotako datu batzuk osatzen dute gaur egun altxorra bilakatu den informazio hura.

16. Sagardo Egun honetan, Usurbilen sagardogintzaren adierazle nabarmenenak diren tolareek zer bilakaera izan duten jakin nahi izan da. Oraingo honetan, maila guztietan zehatzagoa den ikerketa egin da. Jende gehiagok parte hartu duenez, argazkiak, hiztegia, historia etab. zorrotzago jaso ahal izan dira.

Guztira 51 tolare daude herriko baserrietan:

-Aginagan (15): Aginaga sagardotegia, Aintzi zahar, Aitzondo (2), Arriaga azpi (Aldapa), Arriaga haundi, Gorostidi, Ibindos, Larzusta, Nahi genuena, Saria, Txantxon, Urdaira (2) eta Urkamendi.

-Urdaiagan (8): Aialdeneia, Aldatxa, Berritza barrena, Goiko errota, Illunbe sagardotegia, Illunbe baserria, Urtia eta Zabala.

-Zubieta (4): Aizpurua, Araeta, Iruin (2).

-Kalezar (21): Arratzain, Arratzain berri, Artxubieta, Babilonia, Bizkarre, Egioleta haundi, Egioleta txiki, Esperantza, Ibarrola haundi, Ibarrola txiki, Illarramendi zahar, Learritz, Olanonea, Saizar, Ugarte Etxeberri,

Ugarte (2), Urteta (2), Zabalonea eta Zelai haundi.

-Elizaldea (3): Agerre, Gaztañaga eta Olarri.

Motzanean egingo den argazki eta marrazki erakusketan mota askotako tolareen informazioa aurkituko duzue: Tolare gotikoak, barrokoak, karraka-tolareak... Honez gain, tolareko lana osatzen duten tresna ugari aurkituko duzu bertan: matxakak, enkortxadorak, onilak, uhelak, ponpak, karreto-barririkak...

Usurbilgo Sagardo Eguna-ren Lagunak elkarteak sustatutako ikerketa hau Aitziber Matxain, Iker eta Urko Manterola, Josu Agirrezabala, Iñigo García de Eulate, Mikel Bengoetxea, Ainhoa Labaka, Joseba Pellejero eta Jakoba Errekondok gauzatu dute.

XVI. Sagardo Eguneko egitaraua

GOIZEAN

11.30etan

Sagardo Eguna ireki era Mahaspildegi elkar teari egingo zaion ome naldiarekin.

14.00etan

Goizeko saioaren amaiera

14.30etan

Langileentzako bazkaria Mahaspildegi elkartearen.

ARRATSALDEAN

17.00etan

Arratsaldeko saioaren hasiera.

Jarraian

Botatzaileen lehiaketa

19.00etan

XVI. Sagardo Eguna amaiera

EGUN GUZTIAN ZEHAR

Usurbilgo baserrietako tolareei buruzko erakusketa ikusgai Motzanean, sagardoari buruz egindako liburua erakusgai, sagardoz egindako errezeten liburuxka eskuragai, Gipuzkoako 60 sagardotegiri buruzko informazioa, pintxoak....

SAGARDO EGUNA antolatzen duen Usurbilgo Sagardo Eguna-ren Lagunak elkarteak, paregabeko edari honen inguruko kategoriko jai hau egin ahal izateko buru-belarri lanean aritzen diren guztiei eskerrona luzatu nahi die: Mahaspildegi elkarteak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Zumarteko Trikiti eskola, Pipiya txalaparta eskola, udal langileak, tabernariak eta bereziki plaza-giro aparta sortzen duten botatzaile, irrintzilari, margolari, edalontzi eta gozoki saltzaile, dekoratzaile, sukaldari, sagarjotzaile, bertsolari, mama-edale eta egun eder horri etekin gozoa ateratzen dioten usurbildar eta kanpotar guzti-guztiei.